



Nola migratu zure webgunea .eus domeinura

Bertsioa: 1.1

2015eko apirila



Aurkibidea

Sarrera 3

Urratsak 3

Migrazioaren ostean 7

Terminologia 7

Esteka lagungarriak 9

Informazio gehiago 10

Sarrera

.EUS domeinuaren sorrerarekin, lehendik eskuragarri zegoen domeinuluzapenen bildumari, domeinu berri bat gehitu zaio. Euskara eta euskal komunitatearen partaidetza adierazten duen domeinua izanik, jendearen interesa piztu du martxan daraman denbora laburrean. Interes horrek, baina, kezka bat eragin du erabiltzaile batzuegan: domeinuz aldatzeak suposatzen duen lana eta domeinu-aldaketak duen eragina. Dokumentu honetan, kezka hori uxatzen saiatuko gara, .eus domeinua erabiltzen hastea erraza dela eta migrazioak kalterik ez duela erakutsiz. Gida honek modu orokor batean azaltzen du zer den migrazioa, webgune bakoitza ezberdina baita, baina urratsek gidalerro egokiak izan beharko lukete webgune guztietan.

Orokorrean, .eus domeinua erabiltzen hastea gauza azkarra eta erraza da, baina, zure webguneak bilaketa-motorretan duen posizionamendua mantendu nahi izatekotan, badira kontuan hartu beharreko zenbait urrats, aldaketa ondo egin dadin. Aipaturiko posizionamendua zera da: Google bezalako bilatzaile batean zure webgunearen jardunarekin lotutako bilaketa bat egitean, zure webguneak emaitzetan izango duen kokapena. Beste era batera esanda, zure webgunea emaitzen zerrendan zenbatgarren agertuko den. Posizionamendu ona izateko, funtsezkoa da sarean dituzun webguneei ahalik eta zuku gehien ateratzea; esate baterako, webgune berarentzat domeinu bat baino gehiago baduzu, komenigarria litzateke domeinuek jasotzen dituzten bisita guztiak domeinu bakar batera bideratzea.

Urratsak

.eus domeinua erabiltzen hasteko, nahikoa litzateke orain duzun webgunearen fitxategiak domeinu hori ostatzeko erabiliko den zerbitzarian kokatzea eta DNS⁽¹⁾ ezarpenen bidez zure domeinua atzitzen saiatzen direnak zure zerbitzarira bideratzea (kasu gehienetan, erregistratzaileak arduratuko dira DNS ezarpenak prestatzeaz). Dena dela, hori ez litzateke egokiena posizionamendua kontuan hartu nahi baduzu.

Beste ezer baino lehen, kontuan izan migrazioak gertatzen direnean, une berean ahalik eta aldaketa gutxiena egitea komeni izaten dela. Hau da, ez litzateke komeni domeinuz eta webgunez une berean aldatzea, kasu horretan aldaketa konplexuagoa izango da eta. Aldi bakoitzean aldaketa bat egitea komeni da, aldaketa errazago errebisatzeko, eta gaizki joan daitezkeen gauzak hobeto identifikatzeko.

Bestetik, migrazioa egin aurretik komeni da webgunearen egitura adierazten duen sitemap.xml⁽²⁾ fitxategi eguneratua zerbitzarian atzigarri egotea denbora batez, baita bilatzaileei fitxategi horren berri ematea ere (Google Webmaster

Tools⁽³⁾-en bidez, esate baterako). Horrela, bilatzaileek webgunearen egituraren berri izango dute, eta hori lagungarria izango da domeinu zaharrak dituen orrialdeak indexatzeko⁽⁴⁾. Lan horrek ziurtatuko du .eus domeinura migratzean posizionamendua errazago mantenduko dela. Horrekin batera, kontuan izan migrazioa patxadaz egin beharreko prozesu bat dela, presarik gabe egitekoa, urrats bakoitzean arreta jarritz, ondo burutu dadin. Horrela, migrazioan gerta daitezkeen akatsak konpontzen pasatu beharreko denbora laburtu egingo da.

Jarraian, migrazioa egiteko jarraitu beharreko urratsak aipatzen dira. Dokumentuaren bukaeran, migrazioa egiteko urratsetan aipatzen diren zenbait kontzeptu azaltzen dira (*Terminologia* atalean), baita urrats horietan aipatzen diren ekintzei buruzko informazio gehigarria ere (*Esteka lagungarriak* eta *Informazio gehiago* izeneko ataletan).

1. Zure webgunearen egitura dokumentatu, dauzkan atal, orrialde eta fitxategiak (audio, bideo, etab.) ezagutzeko. Horrela, migrazioa burutu ondoren, erreferentzia bat izango duzu, dena ondo joan al den egiaztatu ahal izateko.
2. Google Webmaster Tools eta Google Analytics⁽⁵⁾ gisako tresnak erabilia, ikertu informazio hau:
 - Zein diren zure orrialde bisitatuenak
 - Beste webgune batzuetatik zure webgunera doazen estekak zein orrialdetara doazen
 - Zein estekaren bidez iristen den bisitari gehien beste webgune batzuetatik zure webgunera
 - Indexatuta daukazun orrialdeak
 - Hitz gakoetan⁽⁶⁾ duzun sailkapena.
3. Migrazioan, 404 motako errore batzuk (Not Found)⁽⁷⁾ gertatuko dira. Sortu 404 erroreak gertatzean agertu beharreko orrialde pertsonalizatua (zerbitzariak sortutako errore-mezu lehenetsia ager ez dadin), bisitariari errorearen berri eman ez eta, garrantzitsuagoa dena, zure webguneko beste atal batzuetara joateko esteka batzuk eskainiz. Horrela, bisitariak webgunea erabiltzen jarraitu ahal izango du arazoa konpondu bitartean.
4. Orain arte ez diogu domeinuari inolako aldaketarik egin. Aldaketak egiten hasi aurretik, egin zure webgunearen babeskopia bat, edozer gertatzen dela ere atzera bueltatu ahal izateko.
5. Domeinu berria kokatuta dagoen tokian, robots.txt⁽⁸⁾ fitxategi bat gehitu, bilatzaileek ez dezaten webgunea beren emaitzetan erakutsi. Migrazioa

guztiz bukatu arte izango dugu fitxategi hori hor, bilatzaileek ez ditzaten kontuan hartu egingo diren aldaketak, behin betikoak izan arte. Robots.txt fitxategia gure webgunearen fitxategiak dauden kokalekuaren erroan jarriko dugu. Eduki honekin, lortuko genuke bilatzaileek beren emaitzetan domeinu berria ez erakustea:

User-agent: *

Disallow: /

6. Google Analytics konfiguratu domeinu berriarentzat. Aukerarik onena da domeinu zaharrean erabilitako jarraipen-kode bera erabiltzea domeinu berrian; hala, bi domeinuen datuak konparatu ahalko dituzu. Era berean, 404 errorea gertatzen denean erakutsi beharreko orrialde pertsonalizatuari gehitu Google Analytics-ek jarraipena egiteko behar den kodea. Horrela, erabiltzailearen bati orrialde hori agertzen zaionean Google Analytics-en bitartez aztertu ahalko duzu noiz gertatu den errorea eta zein estekak sortu duen, eta errazago topatuko duzu arazoa.
7. Webgunearen kodean webguneko atal batera joateko esteka absolutu bat erabiltzekotan (adibidez, *albisteak* atala atzitzeko, */albisteak* jarri ordez, www.niredomeinua.com/albisteak jartzea), aldatu esteka horiek eta jarri esteka erlatiboa (*/albisteak*). Ezin bada, eguneratu esteka absolutu horiek domeinu berrira.
8. Jarri martxan domeinu zaharretik domeinu berrirako 301 birbideraketak⁽⁹⁾. Ahal den heinean, komeni da birbideraketek 1:1 erlazioa izatea, hau da, domeinu zaharreko orrialde bakoitza domeinu berriko orrialde batera bideratzea, eta, ezingo balitz, antzeko edukia duen orrialde batera. Beste modu batean esanda, ez da komeni domeinu zaharreko orrialde guztiak domeinu berriko hasiera-orrialdera bideratzea. Era berean, ahal izatekotan, ideia ona litzateke birbideraketak zatika egitea, arazoren bat gertatzen den ikusteko, birbideraketa guztiak une berean martxan jartzea baino. 301 birbideraketak egiteko, hainbat modu daude, baina, gida honetan, .htaccess fitxategiaren bitartez egingo ditugu. Fitxategi horrek domeinu zaharreko fitxategiak kokatuta dauden karpetaen erroan egon behar du (baliteke fitxategia dagoeneko sortuta egotea). Birbideraketa egiteko, eduki hau gehitu beharko diogu .htaccess fitxategiari domeinu zaharreko helbide bat atzitzean domeinu berrian atzitu dezan:

RewriteEngine on

RewriteCond %{HTTP_HOST} ^www.zuredomeinuzaharra.com
[NC,OR]

RewriteCond %{HTTP_HOST} ^zuredomeinuzaharra.com [NC]

RewriteRule (.*)\$ http://www.zuredomeinuberrria.eus/\$1 [R=301,L]

9. Behin 301 birbideraketak ondo ezarri ondoren eta Google Analytics-ek domeinu berriaren informazioa biltzen duela eta webguneak portaera egokia duela ziurtatu ondoren, jakinarazi bilatzaileei domeinuz aldatu duzula Google Webmaster Tools edota antzeko tresnak erabilia.
10. Gehitu duzun robots.txt fitxategia ezabatu, bilatzaileak domeinu berria indexatzen has daitezten.
11. Igo zerbitzarira zure webgunearen egitura deskribatzen duen sitemap.xml fitxategia, eta eman bilatzaileei horren berri Google Webmaster Tools edota antzekoen bitartez.

Une honetan, domeinu zaharrera doazen bisitariak .eus domeinura bideratuak izango dira, eta bilatzaileek zure domeinu berriaren berri izango dute. Hemendik aurrera, bilatzaileak zure domeinu berria indexatzen hasiko dira. Horretan laguntzeko, komeni da beste webguneetan agertzen den informazioa eguneratzea, bilatzaileek eta bisitariak zure .eus domeinua erreferentziazko domeinu gisa eduki dezaten, domeinu zaharra izan beharrean.

12. Eguneratu zure sare sozialetako profiletan jarrita daukazu helbidea, eta ezarri domeinu berria. Horrekin batera, aprobeztatu sare sozialetan jarraitzen zaituen jendeari domeinu berriaren berri emateko. Mezu elektronikoen sinaduretan, dokumentu korporatiboetan eta antzekoetan agertzen den informazioan, ziurtatu domeinu zaharraren ordez domeinu berria agertzen dela. Azkenik, sarean marketin-kanpainiaren bat baduzu — Google Adwords-ekin adibidez—, eguneratu bertan jarrita daukazu helbidea.
13. Zure webgunera bideratzen duten kanpoko webguneen estekak begiratu (bigarren urratsean bildutako informazioa), eta, ahal den kasuetan, esan webgune horien kudeatzaileei esteka horiek eguneratzeko. Horrela, zuzenean zure domeinu berrira joango dira esteka sakatzen duten bisitariak. Aldaketa horiek egiteko kontaktatu beharreko pertsonak asko izan daitezke; beraz, denekin harremanetan jartzeko asmorik/denborarik ez baduzu, lehenetsi trafiko gehien erakartzen duten webguneen kudeatzaileak eta gertuko harremana duzun kudeatzaileak. Lehenengoek aldatzea oso

lagungarria izango da domeinu berriari erreferentzialtasuna emateko. Bigarrenekin konfiantzazko tratua duzunez, erraza izango da mesede gisa egitea aldaketa. Aldatu ezin dituzun esteken kasuan, ziurtatu esteka horien bitartez bisitaria webgune berrira iritsiko dela, hau da, errorerik ez dela gertatzen...

Urrats horien bitartez, .eus domeinurako migrazioa eginda legoke.

Migrazioaren ostean

Migrazioa egin ostean, webgunearen portaera monitorizatu beharra dago, webguneak normaltasunez funtzionatzen duela ziurtatzeko. Ohikoena domeinu zaharrak duen indexatutako orrialde-kopurua jaistea litzateke, eta domeinu berriarena igotzea. Aldaketa horren amaieran domeinu berriak dituen indexazio-datuek domeinu zaharrak migratu aurretik zeuzkanen parekoak izan beharko lukete.

Migrazioa burutu ondoren, webgunean gertatu diren 404 erroreak Google Webmaster Tools tresnaren bidez errebisatu behar dira, eta, ahal izatekotan, konpondu. Aurreko urratsekin migrazioa ondo gauzatu beharko litzateke; hala ere, zerbait gaizki joan ote den ikusteko, adierazle hauek daude: webguneak jasotako trafikoa nabarmen jaistea, indexatutako orrialde-kopurua jaistea, hitz gakoek duten ranking-a jaistea, 404 erroreak oso maiz gertatzea eta domeinu berria ez indexatzea. Horren aurrean, goiko urratsak errebisatu, eta ziurtatu birbideraketek ondo funtzionatzen dutela eta bilatzaileek webgunean sartzeko baimena dutela.

Azkenik, komenigarria izaten da domeinu zaharra denbora batez erabiltzen jarraitzea (.eus domeinura birbideratuta egon arren); batetik, bisitarietara domeinu berria zein den konturatzeko parada emateko eta, nahasten badira ere, webgunea atzitzeko aukera emateko, eta, bestetik, aurreko domeinuak zituen indexatutako orriak eta posizionamendua domeinu berrira pasatzeko denbora emateko. Domeinu zaharra gutxienez 6 hilabetez mantentzea aholkatzen da (ez da beharrezkoa epe hori pasatu ondoren domeinua bertan behera uztea), baina webguneak duen tamainaren arabera aldatu egin daiteke epe hori.

Terminologia

(1) *DNS: Domain Name System* sistema domeinu-izenen aurkibide moduko bat da. Domeinu bakoitzak bere DNS ezarpenak ditu, eta horiek zehazten dute domeinua zein zerbitzaritan atzitu daitekeen, azpidomeinurik duen, domeinuaren posta zein zerbitzarik kudeatzen duen (posta izatekotan), etab. Ezarpen horiek beharrezkoak dira; bestela domeinua ez baita erabilgarri

egongo.

- (2) Sitemap.xml: Webgune baten egitura deskribatzen duen XML formatuko fitxategia. Bertan, webguneak dituen orrialde guztiak aipatzen dira. Bilaketa-motorrek erreferentzia gisa hartzen dute fitxategi hori webgunea indexatzeko orduan.
- (3) Google Webmaster Tools: Gure webguneari buruzko informazioa eskaintzen digun doako zerbitzua da. Google-ren roboten ikuspegia ematen du. Zerbitzu honen bidez, robotek gure webgunea nola ikusten duten jakin dezakegu (errorerik baduen, indexazio-maila, etab.), eta zer maiztasunekin etortzen diren indexazioa egitera. Horrekin batera, aukera ematen digu, besteak beste, indexazioa hobetzeko sitemap.xml fitxategia igotzeko, eta robots.txt fitxategiaren funtzionamendua egokia dela ikusteko. Zerbitzu hau erabiltzen hasteko, nahikoa da zerbitzuan alta ematea (doako zerbitzu bat da) eta gure domeinua gehitzea. Google Webmaster Tool tresnak gure webguneak Google-n duen errendimendua ikuskatzen eta hobetzen lagunduko digu. Beste bilaketa-motorretan dugun errendimendua ikusi ahal izateko, bilatzaile horiek eskaintako tresna erabili beharko dugu (adibidez, Bing Webmaster Tools erabili beharko genuke Bing bilatzailean hobetu nahi badugu).
- (4) Indexazioa: Bilaketa-motorrek robotak erabiltzen dituzte sarean barreiatuta dauden webguneak ezagutzeko eta haien edukien berri izateko. Horretarako, webguneen edukiak indexatu, eta haien zerrenda batera (aurkibide moduko batera) gehitzen dituzte. Bilaketak egiten direnean emaitzak eskuratzeko erabiltzen da aurkibide hori. Hori dela eta, komeni izaten da bilaketa-motorrek webgunearen orrialdeak indexatuta edukitzea; bestela, ez baitira emaitzetan agertuko.
- (5) Google Analytics: Webgune batek dituen bisitarien portaerari jarraitzeko Google-k eskaintzen duen zerbitzua. Honen bidez, jakin daiteke bisitariak zer orrialde bisitatzen dituzten, orrialde bakoitzean zenbat denbora igaro duten, webguneak jasotako bisitari-kopurua, etab. Informazio hori bildu ahal izateko, zerbitzuan alta emateaz gain (doako zerbitzua da), kode-zati bat gehitu beharko dugu gure webgunearen orrialde bakoitzean.
- (6) Hitz gakoak: Webgune baten jardunarekin bat datozen hitzak. Esate baterako, bizikletak saltzen dituen denda baten hitz gakoak *BH*, *Orbea*, *txirrindua* eta *bizikleta-materiala* izan daitezke. Garrantzitsua da, hitz gako horietako bat bilatzean, bilatzaileek emandako emaitzetan webgunea ondo kokatuta egotea.
- (7) 404 Not Found errorea: Webgune batean existitzen ez den edo topatu ezin izan ez den orrialde bat bisitatzen saiatzean gertatzen den errorea. Nahiko errore ohikoa da; batez ere, helbide bat buruz idatzi, eta akatsen bat egindakoan. Migrazioa egitean birbideraketaren bat gaizki badago, 404 errorea gertatuko

da.

- (8) Robots.txt: Fitxategi honen bidez, webguneak indexatzen dituzten robotei esan diezaiekegu webgune osoa edo atal bat ez indexatzeko. Murriztapen hori robot bakar bati (Google-k erabilitako Googlebot delakoari, adibidez) edota robot guztiei aplikatu diezaiekegu. Gero, haien erabakia izango da gure aginduari kasu egitea ala ez, baina bilaketa-robotek normalean jaramon egiten dute.
- (9) 301 birbideraketak: Apache zerbitzarietan, webgune edo orrialde jakin bat atzitzen saiatu den bisitaria beste helbide batera (domeinu berberetara edo beste batekora) birbideratzeko erabiltzen dira. Zure zerbitzaria Apache ez bada, zerbitzari horretan dabilen antzeko birbideraketaren bat erabili beharko zenuke. 301 birbideraketak iraunkorrak direla jotzen da, eta, hori dela eta, bilatzaileek kontuan hartuko dute, eta, haien emaitzetan, bisitaria atzitzen saiatu den helbidearen ordez, birbideraketaren ondoren atzitu den helbidea hartuko dute kontuan.

Esteka lagungarriak

- [Sitemap.xml fitxategia sortu \(gaztelaniaz\)](#)
- [Google Analytics \(gaztelaniaz\)](#)
- [Google Analytics martxan jarri \(gaztelaniaz\)](#)
- [Google Analytics bidez trafikoaren informazioa eskuratzeko \(ingelesez\)](#)
- [Google Webmaster Tools \(gaztelaniaz\)](#)
- [Google Webmaster Tools erabiltzen ikasteko gida \(ingelesez\)](#)
- [404 errore orrialde propioa egiteko gidalerroak \(gaztelaniaz\)](#)
- [Robots.txt fitxategia sortzeko \(ingelesez\)](#)
- [301 birbideraketak egiteko \(ingelesez\)](#) Gidan azaltzen den bigarren urratsa.
- [Jakinarazi Google Webmaster Tools-i domeinuz aldatu duzula \(gaztelaniaz\)](#)



Informazio gehiago

- <http://www.slideshare.net/elixabetegarcia/migracion-web-como-abordar-un-cambio-de-dominio>
- <http://moz.com/blog/web-site-migration-guide-tips-for-seos> (ingelesez)
- <http://www.tentacleinbound.com/articles/website-domain-migration-guide> (ingelesez)
- <http://searchenginewatch.com/sew/news/2067216/the-step-site-migration-process> (ingelesez)